



# ADIERAZPENA

## ANKULEGIK ESKATZEN DIE EUSKAL ERAKUNDE ETA ALDERDI POLITIKOEI ISRAELGO ESTATUAREKIKO HARREMANAK ETEN DITZATELA PALESTINAN GENOZIDIOAK JARRAITZEN DUEN BITARTEAN

ANKULEGI Euskal Antropologia Elkartetik gure kezka eta haserrea adierazi nahi dugu Israelgo Estatu Gazako Zerrendan herritar zibilak setiatuz, gerrako krimenak burutuz eta Palestinako biztanleriaren gaineko genozidioa iraunaraziz erakusten ari den inpunitatearen aurrean. Israel ankerkeriaz eta gizatasunik gabe tratatzen ari da palestinarrak, urik, janaririk eta elektrizitaterik gabe utzita, eta eraikinak, ospitaleak, eskolak, informatzaileak, kazetariak eta baita izugarrikeria horretatik ihes egiten ari diren pertsonak ere etengabe eta bereizi gabe bonbardatuta. Hori are kezagarriagoa da, garbiketa etnikoa egiteko asmo argi eta nabarmena erakusten duelako.

Israelgo gobernu sionistak hamarkadak daramatza palestinarrak benetako apartheid baten mende jartzen, dagoeneko kontzentrazio-esparru edo kartzela gisa hartzen den Gazako Zerrendan batez ere. Egoera hori behin eta berriz salatu dute hainbat erakundek, giza eskubideen defendatzaileek eta gizarte-erakundek, ia ondoriorik gabe. Urriaren 7tik, Hamasek eta Palestinako beste talde

armatu batzuek Israelgo biztanleria zibilaren aurka egindako eraso indiskriminatuen eta gaitzesgarrien ondoren, Israel zigor kolektibo onartezina aplikatzen ari da Palestinako herritar guztien aurka, eta ezin da, inola ere, bidezko defentsa gisa justifikatu.

NBEk genozidiotzat jo ditu krimen horiek ([1948ko abenduaren 9ko Genozidioko Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioan](#) zehaztu zen bezala) eta azaroaren 24ko su-etenera arte salatu zuen Gazako herritarrak gosez eta egarriz hiltzen hasiak zirela. Hala ere, Israelek sistematikoki urratzen ditu NBEren ebazpen guztiak, eta batere zigorrik jaso gabe jarraitu du Gaza bonbardatzen, baita UNRWako errefuxiatuak hartzeko guneak ere, eta ehun langile baino gehiago erail ditu. Horrela jokatuta, Netanyahu zuzendutako gobernuak milaka haur hil ditu; hau da, Palestinako herritar ahulenak, inola ere eragin ez duten egoera beldurgarri bati aurre egin behar diotenak eta berehalako babesa behar dutenak.

Horregatik, ANKULEGIk Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako



Foru Erkidegoko Gobernuei, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, euskal udal guztiei eta Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politiko guztiei eskatzen die Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatiko, komertzial eta lankidetzazko oro hausteko, harik eta biztanleria zibila salbu mantenduko duen eta lekualdatutako pertsona guztiak beren lurraldeetara segurtasunez itzultzea ahalbidetuko duen su-eten iraunkorra ezartzen den arte.

Horrek esan nahi du Europar Batasunari interpelazioa egin behar zaiola: Israelgo Estatuarekin gaur egun indarrean dagoen Euromediterraneo Elkartze-Hitzarmena inpugnatu behar da, eta [Europar Batasuneko Kontseiluaren Jarrera Bateratua \(944/ASPE, 2008ko abenduaren 8koa\)](#) bete dadin eskatu. Jarrera horrek ezartzen du ukatuko dela armak esportatzea giza eskubideak betetzen ez dituzten herrialdeetara, nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen duten herrialdeetara edo urraketa horiek egiteko arrisku nabarmena dagoen herrialdeetara. Estatu espainiarreko Gobernuak, beraz, berehalakoa geldiarazi behar du armen salerosketa herrialde horrekin (Iturria: [Pablo Elorduy, El Salto diario](#)).

Horrek gure lurraldean armen salerosketan diharduten enpresak ere inplikatzeko ditu, administrazio publikoek Israelekin egindako kontratu guztiak eteteko eskatu behar baitiete; eta, era berean, [Bizkaiko Foru Aldundiak 2018an Sosa enpresa-azeleragailu israeldarrekin sinatutako hitzarmena](#) eta lurralde okupatuetan jarduten duen CAF trenbideen euskal enpresa konprometitzen ditu (Iturria: [Gorka Martija, Hordago](#)). Eten egin behar dira, halaber, Eusko Jaurlaritzak duela hamarkada batzuetatik Israelekin

dituen merkataritza- eta lankidetzaharreman guztiak. Izan ere, harreman horiek ohikoak dira, esaterako, material militarrek eta segurtasunekoak erosteko (Iturria: [Ahoztar Zelaieta, El Salto diario](#)).

Azken batean, Israelgo Estatuarekiko lotura eta harreman guztiak bertan behera gelditzea eskatzen dugu, maila guztietan eta esparru guztietan, estatu terrorista gisa jokatzeko duen bitartean. Ez dira nahikoa "geldialdi humanitarioak" eta sarraski berriak iragartzen dituzten su-etenak. Beharrezkoa eta premiazkoa da erasoak gelditzea eta, gainera, Israelek eremu okupatuetan ezarritako apartheid erregimenarekin amaitzea. Israelekin harremanak haustea ezinbestekoa da haren ekintzak gaitzesteko mezu argi eta irmoa zabaldu nahi bada, eta benetako presioa egiteko eta Gazako genozidioaren konplize izaten ez jarraitzeko modu bakarra da.

Ildo horretan, euskal erakunde eta alderdi politikoei ere eskatu nahi diegu bat egin dezatela Gazan egindako genozidioaren eta gizateriaren aurkako krimenen erantzuleak eta eragileak Nazioarteko Zigor Auzitegira eramateko egiten ari diren ekimenekin. Nazioarteko justizia-prozedurak eta eragindako kaltea konpontzeko mekanismoak abian jarri soilik geldiarazi ahal izango da palestinarren eta israeldarren arteko gatazka konpontzeko bide demokratikoak lantzea eragozten duen neurrigabeko eta justifikaziorik gabeko indarkeria.

Azkenik, dei egiten diegu euskal biztanleei [boikot aktiboa egin diezaieten Israelekin harremanak dituzten edo Israelgo kapitala duten produktu, establezimendu eta enpresei](#). Eskola eta ikastetxe guztiei dei egiten diegu



mobilizatzeko eta argi eta garbi adierazteko ikastetxeak ezin direla helburu militarrik izan; eta osasun zentroetako langileei dei egiten diegu gaitzets ditzaten Gazako ospitaleen aurka egiten ari diren eraso onartezinak.

Adierazpen honen bidez bat egin nahi dugu Palestinak bizi duen bidegabeko egoerarako irtenbide demokratikoa eta Palestinaren existentzia eta herri palestinarren autodeterminazio eskubidea aitortuko dituen deskolonizazio prozesu bat eskatzen duten ahotsekin. Gure lurraldean berezko historia duten nazioarteko harremanen eta gizarte gatazken desmilitarizazio eskaerekin ere bat egiten dugu: diktaduren eta gerren, soldadutzaren, arma industriaren eta NATOren aurkako ekimenez ari gara. Izan ere, “[gerra hemen hasten da](#)”, eta ez dugu ahazten Ukrainan gertatzen dena ere, hango liskarrek agerian uzten baitute gerra gorakadaren estrategia eta harreman politikoei buruzko ikuspegi militarra (blokeetan oinarritua) politika egiteko modu zentzugabea dela, eta ez dugula isilbidez naturalizatu eta onartu behar.

Azkenik, berariazko mezu bat helarazi nahi diegu erakunde akademikoei, bereziki euskal unibertsitate publikoei (UPV/EHU eta NUP) eta unibertsitateko

sail guztiei, abian den genozidioaren, okupazioaren eta Palestinako biztanleriak jasaten duen apartheidaren aurka ager daitezten eta [Israelgo unibertsitateen aurkako boikot akademikoaren kanpaine](#)kin bat egin dezaten.

Antropologiako elkarte, sail eta profesionalei bereziki eskatzen diegu Palestinari eta [Insaniyyat](#) Palestinako Antropologia Elkarteko lankideei elkartasuna adierazteko eta [genozidioaren aurrean isilik ez egoteko](#), [Gazako Berzeit Unibertsitateetik eskatu ziguten bezala](#). [Antropologiako profesionalek Israelen aurka egindako boikot kanpaina akademikoa](#) zabaldu eta errepikatzaera animatzen ditugu, bai eta [EASA Europako Antropologia Elkartearen adierazpenak](#) edo indarkeria bertan behera uzteko eskatuz [Amerikako Antropologia Elkarteak plazaratutako agiria](#) zabaltzera ere.

ANKULEGItik proposatzen diogu UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailari, zeinarekin harreman estua baitugu, eska diezaiola Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari Israelgo Estatuarekin harremanak eta lankidetzak eten ditzala, eta, horrela, bat egin dezala [Bartzelonako Unibertsitateko Antropologia Sailak hasitako ekimenarekin](#).

Euskal Herria,  
2023ko azaroaren 29a

Palestinako Herriarekiko  
Elkartasunen Nazioarteko Eguna